

<p style="text-align: center;">EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU ETA NORMALTZEKO UDAL-ORDENANTZA</p> <p>I. KAPITULUA. - ATARIKOAK</p> <p><u>1. Artikulua -Sarrera.</u></p> <p>Euskararen erabilera sustatu eta normaltzeko Udal-Ordenantza hau Elgoibarko Udalerria hizkuntz normalizaziorantz bideratzeko Neurri eta Arauen bilduma da.</p> <p>Ordenantza honek, Euskararen Erabilpena Sustatu eta Normaltzeko Udal-Ordenantzaren irudi juridikoa hartzen du.</p> <p><u>2. Artikulua -Esparrua edo arloa.</u></p> <p>Ordenantza honek, Udal Administrazioa, bere menpe dauden erakunde edota dirulaguntzak emanaz edo zerbitzuak eskainiz laguntzen dituen Erakunde eta Ekintza guztiak hartzen ditu bere baitan.</p> <p>II. KAPITULUA. - EDUKIAREN GARAPENA</p> <p>A.- UDAL-BARNEKO FUNTZIONAMENDUARI ETABERONEN ESKUMENPEKO ERAKUNDEEN FUNTZIONAMENDUARI</p>	<p style="text-align: center;">ORDENANZA MUNICIPAL PARA FOMENTAR Y NORMALIZAR EL USO DEL EUSKERA</p> <p>CAPÍTULO 1. - Preámbulo</p> <p><u>Artículo 1 - Introducción.</u></p> <p>Esta Ordenanza Municipal para Fomentar y Normalizar el uso del Euskera constituye el conjunto de Normas y Medidas para encaminar al municipio de Elgoibar hacia la normalización lingüística.</p> <p>Esta Ordenanza toma la figura jurídica de Ordenanza Municipal para Fomentar y Normalizar el Uso del Euskera.</p> <p><u>Artículo 2- Ámbito.</u></p> <p>Esta Ordenanza incluye en su ámbito al Ayuntamiento, a instituciones que funcionan bajo la jurisdicción del Ayuntamiento así como a entidades y actos que sean subvencionados por el Ayuntamiento.</p> <p>CAPÍTULO II - DESARROLLO DEL CONTENIDO.</p> <p>A.- RELATIVAS AL FUNCIONAMIENTO INTERNO DEL PROPIO AYUNTAMIENTO Y DE LAS INSTITUCIONES BAJO SU JURISDICCIÓN.</p>
--	--

<p>DAGOZKIENAK.</p> <p><u>3. Artikulua - Langileen euskarazko prestakuntza.</u></p> <p>Elgoibarko Udalean eta bere eskumenpeko erakundeetan lehendik kontratatuta lanean ari diren enpleguatuak beren eguneroko lana euskaraz egiteko gai izan behar dira eta gai ez direnak gaitu egingo dira, horretarako beharrezkoak diren Ikastaroak eginez.</p> <p><u>4. Artikulua - Langile berrien hautapena.</u></p> <p>4.1. Elgoibarko Udaleko lanpostuez, funtzionario nahiz lan erregimenpean, jabetu ahal izateko derrigorrezkoa izango da lanposturi dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzea derrigortasun data iritsia denean.</p> <p>4.2. 4.hizkuntza eskakizuna duten lanpostuen deialdien kasurako, Abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuaren 9.2 artikuluan xedatua beteko da:</p> <p>4.3. Barne sustapen bidez betetzen diren lanpostuek besteek duten trataera berdina izango dute.</p> <p><u>5. Artikulua- Bulego, Zerbitzu eta Sailak.</u></p>	<p><u>Artículo 3 - Formación euskérica de los empleados.</u></p> <p>Los empleados que trabajan previamente contratados en el Ayuntamiento de Elgoibar y en las instituciones u organismos de su jurisdicción deben estar capacitados para realizar, cada cual a su nivel, su trabajo diario en euskera y los que no lo estén serán preparados y capacitados, realizando para ello los cursos de aprendizaje que sean necesarios.</p> <p><u>Artículo 4 - Selección de nuevos trabajadores.</u></p> <p>4.1. Para proceder a la provisión de un puesto de trabajo, bien sea en régimen laboral como en régimen funcionarial, será requisito indispensable acreditar el perfil lingüístico que corresponda al mismo a partir de su fecha de preceptividad.</p> <p>4.2. Cuando el perfil lingüístico asignado fuera el cuatro, se cumplirá al artículo 9-2 del Decreto 238/1993, de 3 de agosto.</p> <p>4.3. En las oposiciones de promoción interna los requisitos a cumplir serán los mismos.</p> <p><u>Artículo 5 - Oficinas, Servicios y</u></p>
--	---

<p>5.1. Herritarrekin ahoz nahiz idatziz harreman zuzena duten bulego guztietan, harreman horiek euskaraz bermatzeko adinbat langile elebidun izango da.</p> <p>5.2. Euskaraz sartzen den idazki orori, erabat euskaraz emango zaio tramitazio osoa.</p> <p>5.3. Gizarte-Izaera eta Izaera Orokorrekoak diren Zerbitzuak elebietan lan egiteko gaituko dira.</p> <p>5.4. Egungo egoeratik abiatuta, ondorengo urratsak zehazten dira epe desberdinetan lortzeko:</p> <p>5.4.1. Berehalako epean (1996.eko abendua):</p> <ul style="list-style-type: none"> -Bulegoetan langile guztien gutxieneko mintzamen maila lortzea (erretiroa hartzeko daudenak ezik). -Zerbitzu guztietan, euskara idatzia erabiltzeko gai den enplegaturen bat izatea. -Edozein herritarri, ahoz nahiz idatzizko zerbitzua euskaraz eskaini ahal izatea. -Zerbitzu guztietan, idazkiak, jakinerazpenak eta txostenak euskaraz eskaintzeko gai izatea. -Zerbitzu batzuetatik besteetara pasatzen diren euskarazko barne komunikazioak euskaraz jarraitzea, itzuli beharrik izan gabe. 	<p><u>Secciones.</u></p> <p>5.1. En todas aquellas dependencias que tengan una relación directa con el público, tendrá que haber siempre un número suficiente de empleados bilingües como para garantizar que esas relaciones se den también en euskera.</p> <p>5.2. Todo escrito que se introduzca en euskera, será tramitado totalmente en dicha lengua.</p> <p>5.3. Se habilitará a los Servicios Administrativos de carácter General y Social para que funcionen en bilingüe.</p> <p>5.4. Partiendo de la situación actual, se marcan los siguientes pasos a lograr:</p> <p>5.4.1. En plazo inmediato (hasta diciembre de 1996):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lograr que todos los empleados de oficinas alcancen un nivel mínimo de habla (salvo los que están próximos a jubilarse). - Que en todos los servicios exista al menos algún empleado que sea capaz de utilizar el euskera escrito. - Que todos los servicios sean capaces de ofrecer al ciudadano información oral y escrita en euskera. - Que todos los servicios sean capaces de ofrecer escritos, comunicaciones, notificaciones, e informes en euskera.
---	---

<p>5.4.2. Epe ertainera begira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzu eta Sail bakoitzean zirkuitu elebidunak sortzea. - Espedienteen tramitazioa abiatu den hizkuntza berean egin ahal izatea. - Langileek euskaraz burututako lana itzuli beharrik ez dute izango. - Itzulpenaren beharra duenaren esku egongo da itzulpen-zerbitzua. <p>5.4.3. Epe luzera begira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-Izaera eta Izaera Orokorrekoak diren Zerbitzuetan, Euskarak Laneko Hizkuntza izatera pasa behar du, ahoz eta batez ere idatziz. <p>5.5. Bideak eta Bitartekoak:</p> <p>5.5.1. Euskara-Zerbitzuak idatziko ditu beharrezko diren euskalduntze-alfabetatze eta laneko euskararen egitasmoak, egun indarrean dagoen perfilen legea jarraituz.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bere lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna jadanik betetzen duen langileak euskaraz burutuko du bere lana, eta gainontzekoek, formazio-programaren bidez trebatzen doazen neurrian, arian-arian euskaraz burutzeari ekingo diote. - Langileak euskarazko jardueran laguntza behar izanez gero, Itzulpen Zerbitzuaren 	<ul style="list-style-type: none"> - Que las comunicaciones interiores que vayan de un servicio a otro en euskera tengan continuidad en euskera sin precisar de traducciones. <p>5.4.2. A medio plazo:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Crear circuitos comunicativos bilingües dentro de cada servicio y sección. - Que la tramitación municipal de un expediente se realice en el idioma iniciado. - Los empleados no tendrán que traducir el trabajo desarrollado por ellos en euskera. El que lo precise podrá valerse del Servicio de Traducción. <p>5.4.3. A largo plazo:</p> <ul style="list-style-type: none"> - En todos los Servicios y Unidades Administrativas de carácter General y Social el euskera deberá pasar a ser idioma de trabajo, tanto a nivel oral como a nivel escrito. <p>5.5. Procedimientos y medios:</p> <p>5.5.1. El Servicio de Euskera, siguiendo la ley de los perfiles, será el encargado de redactar los planes necesarios tanto para la euskaldunización y alfabetización de los empleados como para potenciar el uso del euskera en el trabajo.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Los trabajadores que cumplan el perfil correspondiente a su puesto de trabajo, deberán utilizar el euskera en su trabajo, y el
---	---

aholkularitza izango du.

6. Artikulua - Osoko Bilkurak eta Gobernu

Batzordeak

Kontuan izanik organo guztien helburua euskara lan hizkuntza bihurtzea dela, bitartekoak jarri eta neurriak hartuko ditu Udalak aurrerantzean Organo Informatibo, Gobernu Batzorde eta Osoko Bilkuren akta, txosten, aurrekontu eta jakinarazpenak elebietan idatz daitezen. Ahozko ihardunak egin diren hizkuntza beran jaso behar dira. Gero akta horren gaztelerazko edo euskarazko itzulpena egin daiteke inork eskatu ezker.

6.1. Plangintza bat burutuko da eta epeak jarriko dira aurrez esandakoa beteko dela bermatzeko.

6.2. Bestalde, Udaleko organo informatiboen eta exekutiboen deialdiak partaide bakoitzak eskaturiko hizkuntza ofizialean egingo dira.

7. Artikulua- Udaleko liburu ofizialak.

7.1. Liburu Ofizialak elebidunak (euskarari lehentasuna emanez) izango dira. Akta-liburuetan interbentzioak egiten diren hizkuntza berean jasoko dira.

7.2. Sarrera eta Irteeretako Erregistro-Liburuari dagokionean: Idazpenak euskaraz egingo dira, beti ere dokumentuaren aipamena

resto de los trabajadores, a medida que se vayan formando, comenzarán a utilizar el euskera de manera progresiva.

- Todo trabajador que precise ayuda en las traducciones, contará con la colaboración del Servicio de Traducción.

Artículo 6 - Plenos y Comisiones de Gobierno.

Teniendo en cuenta que el objetivo de todos los órganos es convertir el euskera en lengua habitual de trabajo, el Ayuntamiento adoptará todos los medios y medidas para que las actas, informes, presupuestos y demás notificaciones de los órganos informativos, Comisión de Gobierno y Pleno se redacten en bilingüe. Las intervenciones serán redactadas en la lengua en las que se hayan realizado.

6.1. Se llevará a cabo una planificación y se determinarán los plazos, a fin de que se garantice lo anteriormente expuesto.

6.2. Por otro lado, todas las convocatorias de las reuniones de los órganos informativos y ejecutivos del Ayuntamiento serán en el idioma oficial que cada uno solicite.

Artículo 7- Libros Oficiales.

7.1. Los Libros Oficiales del Ayuntamiento, serán bilingües (dando prioridad al euskera).

<p>dokumentua dagoen hizkuntza ofizialean egingo delarik. Eta dokumentua elebiduna bada, aipamena euskaraz egingo da.</p> <p>7.3. Dokumentu horiek erakusteko edota horiekiko egiaztapen-agiriak egiteko, itzulpena bermatuko da.</p> <p><u>8. Artikulua - Inprimaki, iragarki, idazki eta jakinarazpenak.</u></p> <p>8.1. Euskara hutsezkoak erabiliko dira, herriko talde, herritar edo bestek harremanetarako Euskara hautatzen duenean.</p> <p>8.2. Elebietan idatziko dira gainerako kasu guztietan, euskarari lehentasuna emanez.</p> <p><u>9. Artikulua - Ahozko azalpenak, bandoak, mezuak eta abisuak.</u></p> <p>Udalaren eta bere ardurapeko erakundeen azalpen ofizialetan erabili behar den ahozko hizkera, era honetan izango da:</p> <p>9.1. Herritar guztiei zuzendutako informazioa elebietan izango da, lehentasuna beti euskarari emanik.</p> <p>9.2. Arlo honetan gerta litezkeen ezustekoei aurre egiteko, azalpen horiek eman behar dituztenak elebidunak izan beharko dira.</p>	<p>Las intervenciones se redactarán en la misma lengua oficial en las que se hayan realizado.</p> <p>7.2. En cuanto a los Libros de Registro, las anotaciones correspondientes a los documentos que entren o salgan del Ayuntamiento se realizarán siempre en euskera mientras que la mención de los documentos se realizará en la lengua oficial en los que estén escritos. Los redactados en bilingüe se inscribirán en euskera.</p> <p>7.3. A efectos de exhibición y/o certificaciones, se garantizará la traducción.</p> <p><u>Artículo 8 - Impresos, escritos, anuncios y comunicaciones.</u></p> <p>8.1. Se realizarán en euskera solamente cuando cualquier grupo, ciudadano o demás elija el euskera como idioma de relación.</p> <p>8.2. En todos los demás casos, se redactarán en bilingüe dando prioridad al euskera.</p> <p><u>Artículo 9 - Manifestaciones orales, bandos, mensajes, avisos.</u></p> <p>La expresión oral de declaraciones oficiales, realizadas por el Ayuntamiento e Instituciones bajo su jurisdicción, se realizará de la siguiente manera:</p> <p>9.1. Las manifestaciones orales se realizarán</p>
---	--

<p>9.3. Udal-instalazioetan erabiltzen diren bozgorailu bidezko irratietako programak euskarazkoak izan beharko dira nagusiki.</p> <p><u>10. Artikulua - Proiektuak, txosten juridikoak eta merkatal harremanak.</u></p> <p>10.1. Teknikariei eskatutako proiektu teknikoak eta abokatu eta gisakoei eskatutako txosten juridikoak edo bestelakoak, euskaraz ere idatzita egon beharko dira jendaurrean jartzekoak direnean.</p> <p>10.2. Udalak saltzaile eta hornitzaileei Ordenantza honen berri emango die etorkizunean elkarrekin izango dituzten harremanetan dokumentazioa euskaraz ere aurkezteko aukera izan dezaten.</p> <p><u>11. Artikulua - Errotulazioa, iragarkiak eta seinaleztapena.</u></p> <p>11.1. Euskaraz bakarrik idatziko dira:</p> <p>-Euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafiaz idazten diren hitz eta esaldiak, erabilpen zabala dutenak eta piktograma bidez adierazten direnak.</p> <p>11.2. Gainontzeko testuak elebietan agertuko dira, beti ere euskarazko testuari lehentasuna</p>	<p>en bilingüe dando siempre prioridad al euskera.</p> <p>9.2. Con el objeto de hacer frente a los imprevistos que puedan surgir en relación a este tema, los que deban de hacer esas declaraciones deberán ser siempre bilingües.</p> <p>9.3. Asimismo, los programas de radio a propagar por la megafonía de instalaciones municipales, deberán ser mayoritariamente en euskera.</p> <p><u>Artículo 10 - Proyectos, informes jurídicos y relaciones comerciales.</u></p> <p>10.1. Los proyectos técnicos encomendados a los Técnicos así como los informes jurídicos solicitados a abogados y similares, deberán estar asimismo redactados en euskera cuando deban ser expuestos al público.</p> <p>10.2. El Ayuntamiento dará a conocer a vendedores y proveedores esta Ordenanza para que en una futura relación tengan la posibilidad de presentar la documentación en euskera.</p> <p><u>Artículo 11- Rotulación, señalización y anuncios.</u></p> <p>11.1. Se redactarán exclusivamente en euskera:</p> <p>- Palabras y expresiones que se redactan</p>
---	---

emanenez.

12. Artikulua - Kaleko seinaleztapena.

12.1. Kale-izen guztiak euskara hutsez jarriko dira (itzulpena behar duen kasu bereziren bat salbu) eta ofizialki ere hala idatziko dira ondorio guztietarako.

12.2. Honako hauek ere euskaraz idatziko dira: toponimoak, auzo izenak, baserriak, landak, mendiak e.a. Hemen jatorrizko izena errespetatuko da eta izen berriak euskaraz jarriko dira.

12.3. Gainerako testuak elebrietan idatziko dira, beti ere euskarazkoari lehentasuna emanaz.

13. Artikulua - Komunikabidez emandako berriak.

13.1. Komunikabidez emandako berri eta iragarkiak euskaraz eta gaztelaniaz kanporatuko dira, baina lehentasuna euskarak izanez.

13.2. Bidezko ikusten denean Udalaren berri eta iragarkiak komunikabide euskaldunetan euskara hutsean emango dira.

14. Artikulua - Erakunde ofizialei bidaltzen zaizkien idazkiak.

Idazkiak euskaraz bederen bidaliko dira ondorengo erakundeetara:

14.1. Euskal Herriko Autonomi Elkarteko

de forma similar tanto en euskera como en castellano, las de uso muy extendido y las que se señalicen por medio de pictogramas.

11.2. Los demás textos estarán en euskera y castellano, dando prioridad al euskera.

Artículo 12 - Señalización de calles.

12.1. Todos los nombres de calles se inscribirán en euskera y oficialmente se redactarán de esa misma forma.

12.2. Asimismo se redactarán en euskera los topónimos, nombres de barrios, caseríos, campos, montes... respetando siempre el origen del nombre.

12.3. El resto de los textos se escribirán en bilingüe, dando siempre prioridad al euskera.

Artículo 13 - Noticias difundidas por los medios de comunicación.

13.1. Los anuncios y comunicaciones se difundirán en bilingüe, dando prioridad al euskera.

13.2. Cuando se estime conveniente, la información y publicidad municipal se difundirá en euskera a través de medios de comunicación euskaldunes.

<p>Erakunde Ofizial guztietara.</p> <p>14.2. Nafarroako Erakunde Autonomikoetara.</p> <p>14.3. Estatuak lehen aipaturiko Autonomi Elkartetan dituen ordezkarietara.</p> <p>14.4. Ipar Euskal Herriko erakundeetara.</p> <p><u>15. Artikulua - Erakunde Ofizialek igortzen dituzten idazkiak.</u></p> <p>Udalak Erakunde Ofizialetatik nahiz Administrazio Publikoetatik jasotzen den dokumentazioa euskaraz ere bidal dezaten eskatuko du, baina horretarako beti ere, Udalak 14.Artikuluan xedatua zorrozki bete behar du.</p> <p>15.1. Bai Euskal Herriko Autonomi Elkarteko eta baita euskara ofiziala den Nafarroako eremu euskaldun eta mistoko Erakunde Ofizialek, beren idazki guztietan euskara erabili beharko dute. Ondorioz, agiri eta gainerako oro euskaraz bederen eskatuko zaizkie.</p> <p>15.2. Era berean jokatuko da Euskarak Ofizialtasuna duen Elkarte Autonomoetan kokatutako Estatuko Ordezkaritza Ofizialetatik datozen idazkiekin ere.</p> <p>B. UDALERRIKO BIZIMODUARI DAGOZKIONAK.</p>	<p><u>Artículo 14 - Comunicaciones enviadas a Instituciones Oficiales.</u></p> <p>Los escritos dirigidos a las siguientes entidades deberán ser al menos en euskera:</p> <p>14.1. Entidades Forales Autonómicas del País Vasco.</p> <p>14.2. Instituciones Autonómicas de Navarra.</p> <p>14.3. Delegaciones del Estado en la Comunidad Autónoma.</p> <p>14.4. Instituciones del País Vasco francés.</p> <p><u>Artículo 15 - Comunicaciones enviadas por Instituciones Oficiales.</u></p> <p>El Ayuntamiento exigirá que los documentos que deba percibir de Instituciones Oficiales de País Vasco estén redactados al menos en euskera, pero para ello deberá cumplir estrictamente lo dispuesto en el Artículo 14.</p> <p>15.1. Tanto las Instituciones Oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco como de la zona vasca y mixta de Nafarroa deberán usar en todas sus comunicaciones escritas el euskera. En consecuencia, se les solicitará que los documentos que deba percibir el Ayuntamiento estén redactados al menos en euskera.</p> <p>15.2. Se procederá de la misma manera con</p>
---	--

<p>16. Artikulua - Dirulaguntzetarako Araudia.</p> <p>Erakunde, elkarte eta gainerako pertsona edo taldeei dirulaguntzak ematerakoan beste irizpide batzuen artean hizkuntzarena kontutan hartuko da.</p> <p>16.1. Hizkuntza idatziaren aldetik, iragarkiak, txartelak, oharak, kartelak eta publizitatea, euskara hutsez edota elebietan izan beharko dira, baina elebidunak izatekotan, baldintza hauek kontutan hartuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ezagunak edo nahiko erabiliak diren euskal hitz edo esaldiak euskaraz bakarrik idatziko dira. -Bestelako testuak bi hizkuntzetan badaude, euskarak lehentasuna izango du. -Material idatzia inprimatu aurretik Udaletxera eraman beharko da, hizkuntz arloko oniritzia izan dezan. <p>16.2. Hizkuntza mintzatuaren aldetik:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Bozgorailu, irrati eta gisakoen bidez egiten diren propaganda, ohar, e.a. euskara hutsean egiten ez diren kasuetan, euskarari lehentasuna emango zaio. -Erabiltzen diren musika, kantu eta abarretan ere, euskarari lehentasuna emango zaio. <p>16.3. Dirulaguntza hartzaileek arestian aipatutako baldintzak bete beharko dituzte.</p>	<p>escritos procedentes de las Delegaciones Oficiales del Estado ubicadas en la Comunidad Autónoma.</p> <p>B- RELATIVAS A LA VIDA DEL MUNICIPIO</p> <p><u>Artículo 16 - Normativa para subvenciones.</u></p> <p>A la hora de conceder subvenciones a personas, grupos o entidades también se tendrá en cuenta el criterio lingüístico.</p> <p>16.1. En cuanto al texto escrito, los anuncios, tarjetas, avisos, carteles, publicidad, etc. deberán estar escritos en euskera o en bilingüe, pero en el caso de ser bilingües deberán cumplir los siguientes requisitos:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Las palabras o términos euskéricos de uso extendido y conocido en euskera, se escribirán solamente en esa lengua. - En los textos bilingües se le dará prioridad al euskera. - Antes de imprimir el material escrito, deberá presentarse un ejemplar en el Ayuntamiento para que éste dé el visto bueno en el aspecto lingüístico. <p>16.2. En cuanto al uso del idioma hablado:</p> <ul style="list-style-type: none"> - La propaganda, avisos, ambientaciones
---	--

<p><u>17. Artikulua - Udal instalazioak eta materialak erabiltzeko hizkuntza arauak:</u></p> <p>17.1. Udal-instalazioak, aretoak, lurrak, plazak eta materialak erabili behar dituzten erakunde eta enpresa guztiek, 16.1. eta 16.2. artikuluetan aipaturiko hizkuntz arauak bete beharko dituzte eta Udalak idazki bidez adieraziko dizkie baimena ematerakoan.</p> <p>17.2. Hau guztia derrigorrez bete beharko da eta horretarako, Sail bakoitzari eta Zerbitzuburu nahiz Batzorde bakoitzari, alde aurretik idatziz eman beharko zaio honen berri bete dezan.</p> <p>17.3. Baldintzak betetzen ez badira, Udalak honela jokatu du:</p> <p>-Fidantzarik balego, itzultzerako orduan, baldintzak bete direla frogatu beharko da.</p> <p>-Fidantzarik ez balego, hurrengoan baimena ukatuko zaio.</p>	<p>musicales, etc., que se realice por megafonía, radio, prensa o similares, en los casos en que no se realice solamente en euskera, se le dará prioridad al euskera.</p> <p>16.3. Los destinatarios de las subvenciones deberán cumplir dichos requisitos.</p> <p><u>Artículo 17 - Normas lingüísticas para el uso de las instalaciones y materiales municipales.</u></p> <p>17.1. Todas las entidades y empresas que deban utilizar instalaciones, locales, terrenos o plazas del Municipio, deberán cumplir lo ordenado por los artículos 16.1. y 16.2. y el Ayuntamiento lo pondrá en su conocimiento al conceder el permiso o licencia.</p> <p>17.2. Todo esto se deberá cumplir obligatoriamente y para ello a cada Sección, Jefe de Servicios y Comisión se le comunicará por escrito para su cumplimiento.</p>
<p><u>18. Artikulua - Publizitatean euskara erabiltzeagatik dirulaguntzak:</u></p> <p>Publizitate errokuluei dagokienez, honako irizpideen arabera emango zaizkie dirulaguntzak izaera ofizialekoak ez diren merkatal eta edozein motatako entitateei:</p>	<p>17.3. Si no se cumplen las condiciones establecidas, el Ayuntamiento procederá de la siguiente manera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Si existiera fianza, antes de su devolución deberá demostrarse el cumplimiento de las condiciones lingüísticas. - Si no hubiera fianza depositada,

<p>18.1. Euskara hutsean idatzitako errotulua jartzen duenari, errotuluaren kostuaren portzentaia bat, gehienezko kopuru bat arte. Horretarako, beharrezkoa izango da euskaraz ondo idatzita egotea eta hori Euskara Zerbitzuak ziurtatu beharko du. Kopuruari dagokiona, urtez urte berrikusiko du Euskara Batzordeak.</p> <p>18.2. Errotuluetan izena, deitura edo izen-deiturak besterik agertzen ez denean ez da dirulaguntzarik emango.</p> <p>18.3. Establezimendua irekitzeko baimenaren jakinarazpenarekin batera, artikulua honetan xedatutako dirulaguntzen berri emango zaie interesatuei.</p> <p>18.4. Artikulu honetan xedatua betetzeko, Udaleko Euskara Zerbitzuak itzulpenerako aholkularitza eskainiko du, eta horrela jakinaraziko zaie interesatuei.</p> <p><u>19. Artikulua - Euskara-ikasleei eta euskarazko ikastaro berezietakoei dirulaguntzak:</u></p> <p>19.1. Irakaskuntza araututik at, herritik kanpo antolatzen diren euskara hutsezko ikastaroak (UEUkoak, UNED, Barnetegiak, Itzulpen masterrak, Laneko Euskarari buruzkoak eta gisa honetakoak) egiten dituztenei ere</p>	<p>se le negará la próxima autorización que solicite.</p> <p><u>Artículo 18 - Subvenciones por el uso del euskera en la publicidad.</u></p> <p>En lo referente a los rótulos publicitarios, el Ayuntamiento concederá subvenciones a entidades mercantiles y de todo tipo que no sean de carácter oficial con arreglo a los siguientes criterios:</p> <p>18.1. Se concederán subvenciones a rótulos redactados exclusivamente en euskera. Para ello será necesario que estén bien redactados en euskera y este aspecto será supervisado por el Servicio de Euskera. La subvención corresponderá a un porcentaje del coste del rótulo hasta una cantidad máxima. Lo referente a las cantidades será revisado anualmente por la Comisión de Euskera.</p> <p>18.2. Cuando en el rótulo aparezca simplemente el nombre, apellido o el nombre y apellidos no se concederá ningún tipo de subvención.</p> <p>18.3. Junto con la notificación de la autorización de apertura del establecimiento se informará a los interesados sobre las subvenciones establecidas en este artículo.</p> <p>18.4. El Ayuntamiento ofrecerá los servicios de traducción y asesoramiento y así lo hará saber a los interesados.</p>
--	--

<p>dirulaguntzak emango zaizkie, eta Euskara Batzordeak erabakiko ditu aldi bakoitzean laguntzaren zenbatekoa eta eskatu beharreko baldintzak.</p> <p>19.2. Ikastetxeetako euskarazko ereduen eragile eta bultzatzaile diren egitasmo jakinei laguntzak emango zaizkie, aldian aldiko proiektuak aztertu ondoren.</p> <p>19.3. Udalak, euskarazko sorkuntza indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez, herritarrek euskaraz idatzitako lanak argitaratzeko laguntzak emango ditu, horretarako literatura eta interesgarriak izan daitezkeen beste arlo batzuetako ekintzak bultzatuz.</p> <p>19.4. Euskararen inguruan buruturiko lanek Udalaren babesa eta laguntza izango dute, beti ere lanaren kalitateak merezi badu.</p> <p>Lanaren proiektua aurrez aurkeztu beharko da eta Euskara Batzordeak proposatuko du lanari babesa eta diru-laguntza eman ala ez. Lana burutu ondoren, Euskara Batzordeak laguntzaren zenbatekoa erabakiko du.</p> <p><u>20. Artikulua- Kexuen bideratzea.</u></p> <p>Udalerrri barruan, edozein Zerbitzu Publikotan ere, Zerbitzua euskaraz prestatzen ez den</p>	<p><u>Artículo 19 - Subvenciones a alumnos que estudien euskera o cursos especiales en euskera.</u></p> <p>19.1. A los que realicen Cursos exclusivamente en Euskera al margen de la Enseñanza Reglada (como UEU, Euskera Técnico o de Trabajo y similares) se les concederá ayudas y la Comisión de Euskera decidirá en cada caso la cuantía correspondiente y las condiciones a cumplir.</p> <p>19.2. Se concederán ayudas a Planes concretos que sean impulsores de Modelos de Enseñanza euskaldunes en los Centros Escolares, tras analizar los proyectos concretos y decidir en consecuencia.</p> <p>19.3. El Ayuntamiento con el objeto de impulsar la creatividad en euskera así como la escritura y la lectura en euskera, concederá ayudas para publicar los trabajos redactados en euskera por los vecinos, impulsando y culminando para ello, actividades sobre literatura u otros campos que estime oportunos.</p> <p>19.4. El Ayuntamiento concederá ayudas a quien realice trabajos en torno al euskera, siempre y cuando quede demostrada la calidad del trabajo realizado.</p>
---	---

<p>kasuetan, kexua Udalaren bidez bideratu ahal izango da, eta horren jarraipenaz Udaleko Euskara Zerbitzua arduratuko da.</p>	<p>Una vez presentado el proyecto, la Comisión de Euskera se reserva el derecho de proponer la concesión de la subvención o su denegación.</p>
<p><u>21. Artikulua - Hizkuntza normalkuntzarako azpiegitura.</u></p>	<p><u>Artículo 20 - Tramitación de reclamaciones.</u></p>
<p>Ordenantza honen aplikaziorako har daitezkeen neurri teknikoen zuzendaritza eta jarraipenaz Udaleko Euskara Zerbitzua arduratuko da, Euskara Batzordeak esandakoan oinarrituz.</p>	<p>En el caso de que en cualquier servicio público el servicio no sea prestado en Euskera; las reclamaciones podrán ser canalizadas a través del Ayuntamiento y la Comisión de Euskera se encargará de la corrección correspondiente.</p>
<p>Udal Euskara Batzordeari eta beste organo politikoei dagokie akordioak proposatzea eta erabakitzea.</p>	<p><u>Artículo 21- Infraestructura para la normalización lingüística.</u></p>
<p>Era berean, Euskara Batzordea, Elgoibarren euskara normaltzeko lanean dihardutenen eztabaidarako elkargunea izango da. Udalaren hizkuntza normalizaziorako ardatzak finkatu eta irizpideak emateaz arduratuko da. Bestalde, Euskara Zerbitzu Teknikoa Euskara Batzordeak behar duen laguntza teknikoa ematen saiatuko da.</p>	<p>El Servicio Técnico Municipal de Euskera será el encargado del seguimiento de las medidas técnicas que puedan aprobarse en el futuro para la aplicación y desarrollo de esta Ordenanza, con arreglo a las directrices de la Comisión Informativa de Euskera.</p> <p>Corresponde a la Comisión de Euskera y al resto de los órganos políticos proponer y adoptar los acuerdos.</p>
<p><u>22. Artikulua - Euskararen gizarte erabilera dinamizatzea.</u></p>	<p>Del mismo modo, la Comisión de Euskera, será punto de encuentro de todos los que trabajen en Elgoibar en la normalización del Euskera. Se responsabilizará de fijar los ejes para materializar la normalización de</p>
<p>Euskara dakitenak euskaraz bizi ahal izan daitezen, Udalak bere inguru soziala euskalduntzeko egitamu bereziak prestatuko</p>	<p>Del mismo modo, la Comisión de Euskera, será punto de encuentro de todos los que trabajen en Elgoibar en la normalización del Euskera. Se responsabilizará de fijar los ejes para materializar la normalización de</p>

<p>ditu.</p> <p>Euskara bultzatzeko orduan, ama hizkuntza gaztelania izanik, bereziki diglosiarako joera duten taldeak hartuko dira kontutan, hau da, eskolan euskara erabiltzera behar-turik aurkitzen badira ere, gizarte bizitzan erdararako joera duten taldeak.</p> <p>III. KAPITULUA. - XEDAPEN GEHIGARRIA.</p> <p>Elgoibarko Udalak sortu edo bultzatzen dituen programa guztietan, hizkuntz erabileraren normalizaziorako ikuspegia kontuan hartu beharko da.</p> <p>Udalak onartutako beste Ordenantza eta xedapenek ere, Ordenantza honetan jasotakoak berenganatuko dituzte.</p> <p>Udal-Ordenantza honetan agindutakoa betetzeko eta betearazteko ardura, Udaleko aginte organo guztiek dute, Euskara Batzordearen eta Euskara Zerbitzuaren bidez begiztatuko dituztelarik Ordenantza honetako puntu guztien betekizuna eta gertatzen diren arau-haustek, salatu eta bete daitezten exijituko dute.</p> <p>Era berean, Ordenantza honetan egitaratua bete ahal izateko ezinbestekoa den Euskara Zerbitzua garatuko dute, behar dituen giza- eta</p>	<p>lingüística del Ayuntamiento. Por otro lado, el Servicio de Euskera tratará asimismo de ofrecer la ayuda técnica necesaria a la Comisión de Euskera.</p> <p><u>Artículo 22 - Sobre la dinamización del uso social del euskera.</u></p> <p>A fin de que quienes sepan euskera puedan desenvolverse en dicha lengua, el Ayuntamiento elaborará planes especiales para euskaldunizar la vida social del municipio.</p> <p>Se tendrán en cuenta especialmente los colectivos de niños y jóvenes cuya lengua materna sea el castellano, de cara a fomentar el uso del euskera en estos colectivos especialmente vulnerables a una utilización diglósica.</p> <p>CAPÍTULO III. - DISPOSICIÓN ADICIONAL.</p> <p>En todos los programas creados o impulsados por el Ayuntamiento de Elgoibar, se deberá de tener en cuenta la normalización del uso del idioma.</p> <p>Todas las demás disposiciones y Ordenanzas aprobadas por el Ayuntamiento deberán asimismo integrar lo que consta en esta Ordenanza.</p>
--	---

<p>material- bitartekoz hornituta.</p> <p>Ordenantza honen garapenerako beharrezkoak diren xedapen eta programa bereziak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko Organo Exekutiboek.</p> <p>Ordenantza hau, onartzen den egunetik hasi eta bost urtetara berraztertuko da.</p> <p>IV. KAPITULUA - XEDAPEN DEROGATZAILEA.</p> <p>Ordenantza honetan xedatuarekin bat ez datozen edota kontrajarrita dauden erabaki guztiak, baliorik gabe geldituko dira.</p> <p>V. KAPITULUA. - AZKEN XEDAPENA.</p> <p>Ordenantza hau, Udalbatzak 95-01-27ko ohiko bilkuran behin-betiko onartu zuen.</p> <p>Ordenantza honek indarra galduko du Udalak horrela erabaki dezanean, Udalean eta Udalerrian euskararen egoera erabat normalizatu delako, edota, momentuko egoerari hobeto erantzuteko honen ordezkorik beste ordenantza bat onartu delako.</p>	<p>La responsabilidad de cumplir y hacer cumplir lo dispuesto está en manos de todos los órganos de autoridad del Ayuntamiento. Estos órganos, por medio de la Comisión y Servicio de Euskera controlarán el cumplimiento de todos los puntos de esta Ordenanza.</p> <p>Del mismo modo, para poder cumplir lo programado en esta Ordenanza, será imprescindible desarrollar el Servicio de Euskera adecuado, provisto de los medios humanos y materiales que se precisen.</p> <p>Los Organos Ejecutivos del Ayuntamiento impulsarán programas especiales necesarios para la aplicación de esta Ordenanza.</p> <p>Esta Ordenanza será revisada a los cinco años de su aprobación.</p> <p>CAPÍTULO IV- DISPOSICIÓN DEROGATORIA.</p> <p>Todos los acuerdos que no se avengan a lo dispuesto en esta Ordenanza o estén en contradicción con la misma quedan invalidados.</p> <p>CAPÍTULO V- DISPOSICIÓN FINAL.</p>
--	--

	<p>La presente Ordenanza fue aprobada definitivamente en el Pleno Municipal en su sesión ordinaria, de 27-01-95.</p> <p>Esta ordenanza continuará en vigor hasta que la sesión plenaria del Ayuntamiento proceda a su derogación, en caso de que la situación del euskera se haya normalizado en el municipio, o su renovación.</p>
--	---